

“FREE PLASTIC FRIDAY”

- **Taldearen datuak**

Eskola: Arantzazuko Ama BHI

Gela: DBH 3B

Taldeakideak: Oier Zuloaga, Lander Garde, Haritz Alfonso eta Unax Abarquero.

Harremanetarako zenbakia: 788 77 90 54 (Lander)

- **Proiektuaren izenburua eta taldearen izena**

Taldearen izena, Pixkilin da eta Proiektuaren izenburua free plastic friday da.

- **Proiektuaren helburu nagusia**

Gu plastikoaren murrizketan oinarritu gara.

Free Plastic Friday proiektuaren helburua, eskolan, ostiraletan bereziki plastikoaren arazoaz kontzientziatzea izan da. Horretarako, Ostiralero, BHIko klase guztietan plastikoa pisatu dugu. Plastikoa gehien sortu duen gelak galdu du, eta astero ranking bat eguneratu da. Aurretik ere, ostegunetan gogorarazi egiten genuen ostiraleko erronkaz.

- **Proiektuaren deskribapena:**

Gure eskolan erabiltzen dugun plastikoaren arazoa, ikasle eta irakasleek ulertzea lortu dugu. Pertsona askok ohitura iraunkorragoak hartu dituzte.

Orain arte, gutxi gora behera 300 pertsona ingurura iritsi gara gure posterren eta jardueren bidez. Gure entzule nagusiak gure proiektua aurrera eramanez nahi zutenak izan dira, ikasleak eta irakasleak, baita modu jasangarriagoan bizi nahi duten familiak ere, zeren gazte eta helduak etxean gauzak aldatu dituzte.

Hasierako ideiatik proiektua abiarazi arte hilabeteko tarteak izan dugu, gutxigora behera. Denbora horretan, proiektua planifikatu, ideiak bilatu eta jarduerak antolatu ditugu.

Bagenekien astean zehar jende askok plastikoa asko erabiltzen zuela, neurririk gabe, eta hasteko, bagenekien ostirala zela plastikoa gehien erabiltzen zena eta, ondorioz, ostirala aukeratu genuen gure erronkarako. Horregatik horri buruzko proiektua egitea erabaki genuen eta lortu dugu! Ikastolan ostiraletan plastikoa murriztea.

Gure proiektuak izanduen garapena asko gustatu zaigu. Ikusi degu nola jendeak patioan ez du plastikorik ekarri eta asko gustatu zaigu. Gogorrena, ohitura aldatzea izan da, ostiralero plastikoa ez ekartzearen ondorioz, hasieran gogorra izan da, zeren normalean hamaiketakoak plastiko bilgarriekin ekartzen dugu, baina gero aldiz, ohitu gara, plastikoa ez ekartzen...

Gure ohiturak oso txarrak direla konturatu gara. Mundu osoan pertsona guztiak plastiko asko erabiltzen dugula ikasi degu. Eta horren ondorioz, plastikoa murriztu behar dugula ere bai.

- **Komunikazioa plana:**

Aurkezpen bideoaren esteka: [AURKEZPEN BIDEOA](#)

Amaiera bideoaren esteka: [Amaiera bideoa.mp4](#)